



IKASTOLAKO JAIA

LAGUNTZAILEEN ANTOLAKETA, HERRI BAZKARIA ETA ZOZKETA

Iragarri bezala, maiatzaren 27an Ikastolako Jaia ospatuko dugu. Hori dela eta antolaketa lanetan lagunduko duen pertsona taldea osatu behar dugu.

Behar diren zeregin ezberdinetan, bezperako muntaketan, txosnan, bazkarian, garbiketean... izena emateko formularioa sortu dugu horretarako. Eman izena ahalik eta lasterren txandak antola ditzagun:

izena eman 



HERRI BAZKARIA

Aurtengoan denok batera, ikasle, guraso eta langileak, bazkalduko dugu kiroldegian.

*Txartelak Idazkaritzan salgai izango ditugu **maiatzaren 19 arte**. Prezio eta menuak adinaka egokitu dira:*

***Haur menua**, HH3-LH6 urte: 6€. Makarroiak, solomo eta izozkia; aukera beganoa: entsalada, makarroiak eta izozkia.*

***Menu orokorra:** BH: 12€, Helduak: 20€. Barazki paella, oilaskoa eta gurin opilak; aukera beganoa: barazki paella, albirjiniak eta mazedonia.*

IKASTOLAKO ZOZKETAKO TAKOEN BANAKETA

Gogoan izan Ikastolako rifako takoak maiatzeko erreziboan kobratu ditugula eta jaia baino lehenago, maiatzaren 25 arte, idazkaritzan jaso daitezkeela.